



OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

ALKATE DEKRETUA

Nik, Oñatiko Alkate Izaro Elorza Arregik, Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, honako hau agintzen dut:

Aldi baterako beharrak asetzeko ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI lan-poltsa bat sortzeko deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea.

Udaletxean batzuetan aldi baterako langilego beharrak izaten dira, eta kasu honetan, ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI lanpostua betetzeko, izaera horretako lan-poltsa bat sortzea beharrezkotzat ikusten da. Hori dela eta, deialdia eta oinarri arautzaileak onartu behar dira.

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Oñatiko Alkate naizen honek, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilia, honen bidez

ERABAKITZEN DUT:

Lehenengoa: Administrazio Orokorreko Teknikari lan-poltsa sortzeko deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena: udaletxeko iragarki taulan eta www.onati.eus web orrian argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut Oñatin, 2021eko martxoaren 18an

 **ALKATEAK**

Izaro Elorza Arregui